

**BERMEOKO MUSEOAREN PROIEKTUA**

«Nik erabaki nuen bertan behera uztea; dirutza zen, eta ez nuen uste ez nik ez inork jarri behar zuenik»

**JORGE OTEIZA**

«Lagun handia bai, baina ez da inoiz nire irakaslea izan. Hala ez jokatzeko leuntasuna izan zuen»

**ARANTZAZUKO PINTURAK**

«Apaizek ez didate oraindik barkamena eskatu; lotsagabe hutsak dira, estafadoreak»

tinan, bat AEBetan eta hemen gainerakoak.

**Zer da zuretzat artea?**

Izateko arrazoa.

**Arterik gabe ez dago Nestor Basterretxearik?**

Ez.

**Harremana duzu egungo artista gazteekin?**

Ez. Gaur egun antolatzen diren erakusketa, jardunaldi eta ekitaldietara ez naiz joaten. Ez nago harro horrekin, badakit akatsa dela. Ez dakit nire arazoa den, edo oro har, euskal artistena, baina iruditzen zait bakarrik egoteko ohitura dugula. Artista batzuen obrak ezagutzen ditut.

**Lehenengo eta egungo artisten artean alde handia dagoela uste duzu?**


Gu oso klasikoak gara. Denboran iraungo duen artea egin nahi dugu; aldez, gazteek ez dute arazorik obra iragankorrek egiteko. Eta eskuzabala izan behar da gero, obra bukatu eta ez da ezer geratzen. Gazteek harrizten naute askotan. Eta batzuetan ulertzen ditut beren planteamenduak eta proposamenak. Baina batzuei esaten diet: «Kontuz! Ez zaitzete saiatu modan dagoena egiten, zeren orduan ez zarete zuek erabakitzen ari zaretanak, besteak ari dira zuegatik erabakitzen».

**Hondarribian bizi zara. Han duzu zure obraren gehiena, ezta? Han edukitzeko asmoa duzu?**

Bermeon nire obraren zati bat egongo da, 27 eskultura inguru, eta gainerakoa Hondarribiko etxean, lehenengo solairuan eta landan. Han egongo da urte luzez, bai. Baserri batean bizi naiz. Jorge Oteiza Gipuzkoatik joan ez zedin lortu nuen baserri hura. Irunen bizi ginen, elkarren ondoan, ni nire emaztearekin, eta bera berearekin. Lagun handiak ginen. Bizitzeko leku lasaiago baten bila hasi ginen. Hondarribian gustatu zitzaidan etxe bat aurkitu nuen, eta esan nindoala, eta etor zedila nirekin. Baina berak ezetz, Nafarroara joan nahi zuela. Nire ondotik joan ez zedin izugarritzko baserri polita bilatu nuen berarentzat, eta erakutsi nion. Izugarri hunkitu zen. «Jo Nestortxu, mila esker», esaten zidan, baina erabakita zuen joatea, eta hala egin zuen. Urte batzuen ondoren ni joan nintzen baserri hartara bizitzera. Duela 27 urte izan zen hori guztia.

**Faltan sentitzen duzu Jorge Oteiza?**

Izugarri. Jorge artista eta Jorge pertsonak. Pertsonak. Bat baino gehiago. Jorge ez zen bat, ez bi. Jorgek gutxienez lau pertsona zituen bere baitan: goizeko Jorge, eguerdiko Jorge, arratsaldeko Jorge eta gaueko Jorge. Etengabe aldatzen zuen iritzi. Eztabaidarako sekulako gaitasuna zuen,



LUIS JAUREGALIZO / ARGAKZI PRESS

ozen baieztatutakoa indar berarekin ezeztatzeko. Oso azkarra zen. Eta eskuzabala, eta zekena; lagunik onena, eta traidoreena. Ez dut sekula bera bezalakorik ezagutu. Bakarra zen. Euskal Herriak eman duen artistarik

onena da Oteiza. Pribilejioa izan zen niretzat bera ezagutzera.

**Argentinan ezagutu zenuten elkar, ezta?**

Buenos Airesen ezagutu nuen. Lagun batekin nengoen erreferentziatuen zentroan, eta bat-batean

tipo bat jaitzi zen eskaileran behera abiada bizian. Nor zen galdetu nuen, eta zoro bat zela erantzun zidan nire lagunak, eskultorea zela. Hortik hiru urtera Florida kalean topatu nuen. Emaztearekin zihoan. Oteiza ba ote zen

galdetu nion, eta berak baietz. Hitz egiten hasi eta lagun minak egin ginen berehala. Bizitzeko sos batzuk ateratzeko hildakoen maskarak egiten zituen, senideen enkarguz. Nola egiten ziren erakutsi zidan. Gauza asko erakutsi zizkidan.

**Eskulturak egiten ere bai?**

Ez. Oteizarengatik naizela eskultore pentsatzen duen jendea badago, eta horrek amorratzen nau. Oteiza ez da inoiz nire irakaslea izan. Hala ez jokatzeko leuntasuna izan zuen. Noiz edo noiz zerbait esaten zidan, baina besterik ez. Nik asko marrazten nuen, baina ez marrazteagatik, egiten nuena aztertzen nuen. Arau fisikoa aplikatzen nituen, eta horrela hasi nintzen eskulturak egiten. 1960an egin nituen lehenak. Animatu ninduen, baina nik eman nuen pausoa nire kabuz. Gauza asko egiteko animatzen ninduen. Arantzazuko pinturak egiteko lehiaketara aurkezteko berak esan zidan.

**Ondoren etorri zena ikusita, damutu zara inoiz Arantzazuko lehiaketara aurkeztu izanaz?**

Ez, ezta gutxiago ere. Kriptako pinturak egin behar nituen. 18, guztira. 11 marraztuta nituen. Eta bat-batean, komunista, maritxua eta nik zer dakit beste zer nintzelakoan, borratu zizkidaten. 27 urteren ondoren lortu nuen muralak egitea. Oraindik ez didate barkamenik eskatu, lotsagabe hutsak dira, estafadoreak.

**Txillidaz Oteizaz bezain oroitzapen onak dituzu?**

Ez. Neবাদan (AEB) euskal artzainen omenezko eskultura egiteko lehiaketa irabazi nuen behin. Hori baino lehen, Larrea, Mendiburu eta hirurok bildu ginen, eta lehiaketa horretara aurkeztea pentsatu genuen. Txillidagure asmoen berri izan zuen, bere agentearen bitartez. AEBetan zer edo zer egiteko aukera bazegoela jakin zuen. Hegazkina hartu eta han azaldu zen, gu hirurok ezer ez ginela esanez. Euskal eskultore bakarra bera zela esan zien amerikarrei. Oteiza ez zuen aipatu ere egin, jakina. Egunen batean *Beste Txillida* idatziko du norbaitek. Besteen gaitetik gailentzeko, edozer gauza egiteko gai zen. Ahalegin biziak egin zituen gu erditik kentzeko. Faxista hutsa zen. Bere aita Molaren gizonetako bat izan zen Gipuzkoan. Jendeak ez zuen benetako Txillida ezagutu, ez daki nolakoa izan zen, edo bai, baina ez dugu memoria historikorik. Pena da, zeren memoriarik gabe ez gara ezer. Memoriarik gabe lehengo faxistak oraingo demokratikak dira.